

GERRAKO EKOLOGIA

XXI. MENDEKO GATAZKA
AMAIEZINEN ZAURI BERRIAK



André Vltchek kazetaria eta
Ghassan Abu-Sittah doktorea elkarrizketan

Gerra medikuntza berria XXI. mende gatazkatsurako

André Vltchek (1962) kazetari eta dokumentalgilea mundua korritua da gatazka armatuen berri emanet. Leningradon sortua (San Petersburgo, Errusia), iparramerikarra nazionalitatez, ezaguna da hedabide handi bezala txikietan argitaratu kronikengatik, halaber liburuengatik, azken biak *Imperioaren gezurrak erakutsiz* eta *Aurora*, fikziozkoa. Euskal Herrian Txalapartak argitaratu zion Noam Chomskyrekin egindako *Mendebaldeko terrorismoa*. Dokumental saila ere egina du, Ruanda eta Kongoko gerraz eta beste hainbatez. Une honetan, Borneon Indonesiak gobernuak burutzen duen hondamendi ekologiko eta humanoaz ari da filmatzen dokumental bat. Lana independentzia osoz burutzearen maitale, jarraitzaileen artean diru bilketan ari da: Internetez *Saving Borneo/Kalimantan Island!!!* bilatuz aurki daiteke proiektua diruz sustatzeko modua.

Ghassan Abu Sittah doktorea, Kuwaiten jaiotako palestinarra, Britainia Handian ikasi eta berezitu ostean Beiruteko Unibertsitate Amerikarrean kirurgia plastiko sailaren arduraduna da. 2015ean mediku eta soziologo batzuekin batera plazaratu zuen “*Conflict Medicine: A Manifesto*” agiria Mugarik Gabeko Medikuak erakundearen babesean. Aldarrikatzen dutenez, “manifestuarekin nabarmendu nahi dugu hobeto ezagutu beharrean gaudela zaurien eta ber-zauritzeen dinamikak, aldatzen ari den gerraren ekologiaren baitan. (...) Gerrak aldatzen du biosfera, alegia, azpiegitura fisikoak eta jendea bizi den ingurumen biologiko eta soziala. Gerrak dakartzan suntsiketa eta aldaketak sarritan konponezinak dira eta epe luzerako ondorioak dauzkate pertsonengan eta gizartean”.

Vltcheken elkarritzeta hau estreinakoz *Counterpunch* gune aurrerazalean plazaratu zuen *Middle Eastern Surgeon Speaks About “Ecology of War”* tituluarekin 2017ko apirilean. André Vltchekek eskuzabaltasunez eman dio ARGIAri baimena euskaraturik ia osorik zabaltzeko.

Egilea: André Vltchek

Itzulpena: Pello Zubiria Kamino

Azala: Joseba Larratxe · **Maketazioa:** Antza Komunikazio Grafikoa

LARRUN pentsamendu aldizkaria ARGIArekin batera banatzen da. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre Kerejeta. **Jabea:** Komunikazio Biziagoa S.A.L. **Helbidea:** Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia 20160 Lasarte-Oria **Posta elektronikoa:** larrun@argia.eus **Telefona:** (00 34) 943 37 15 45. **Inprimategia:** Antza Komunikazio Grafikoa (ARGIAren 2.576. zenbakirekin banatua, 2017ko azaroaren 26an)



AEBetako militarrak Haitiko karrika batean, lurrikarak zauritutako herritar bat operatzen gerrako baldintzetan.
Militarrek hondamendiok erabiltzen dituzten gerrarako prestatzeko. ANDRÉ VLTCHEK

Ghassan ‘Gus’ Abu-Sittah doktorea Kirurgia Plastiko sailaren zuzendaria da AUBMC Amerikar Unibertsitateko ospitalean, Beiruten (Libano). Bere espezialitatea: kirurgia berreraikitzalea. Munduaren parte honetan zera esan nahi duena: gerra eremuetatik jendea ekartzen dizutela zatiak, aurpegirik gabe, ez ezagutzeko adina erre-ta, eta zuk berriro biziari behar dituzula.

Abu-Sittah doktorea pentsalaria ere bada. Kuwaiten sortutako palestinarra, Britainia Handian ikasi eta bizi izana da, Ekialde Hurbileko zenbait gudu lekutan egin du lan, Asian ere bai, onartu zuen arte gaur Beiruteko AUBMCn daukan enplegua.

Modu bitxian egin genuen topo. Duela hilabete batzuk oina erre nuen Hego-Ekialdeko Asian

hondar gorituan jarrita. Poliki ari zen sendatzen baina Afganistanera joan nintzenean, Herateko *checkpoint* batean nengoela oin hutsik jarrarazi ninduten eta berriro zornetu zen zauria. Londrestik pasatzean, Abu-Sittahren irakasle ohi batek artatu ninduen, eta esan nionean Libanon ere egiten dudala lan, gomendatu zidan bisitatzea “gure ikasle onenetako bat gaur Beiruten ari dena”.

Hala egin nuen. Al-Mayadeen telebista pan-arabiarra elkarrizketa bat grabatzen ari zitzaidan nire azken nobela politiko-iraultzailea den “Aurora”, munduaren Hegoaidearen egoera, Mendebaldearen imperialismoaren berrindartzea eta abarrez. Nire harridurarako, Abu-Sittah eta bere kolega medikuek jarraitzen zituzten nire lan eta ideia politikoak. Ondo zaildutako medikuon-

“

Miseria gerra da. Munduan jende pila bat bizi da gaur gatazka edo gerran, sarritan ohartu ere egin gabe: txabolategietan, errefuxiatu kanpalekuetan, hondoa jotako herrialdeetan...

tzako harramazkada ahul bat baino ez zen nire oinaren “arazo”. Benetan interesatzen zitzaidana zen AEBen erasoa Siria eta Palestinaren kontra, eta Ipar Korearen kontrako probokazioak.

Zauria ondo sendatu zitzaidan eta Abu-Sittah eta biok lagun egin ginen. Zoritzarrez Beirutetik alde egin beharra daukat Asia Hego-Ekialdeantz, eta ez dut harrapatuko gerrako ekologiari



Ghassan Abu-Sittah Beiruteko Younes kafetegian joan den apirilaren 25ean. ANDRÉ VLTCHÉK

buruzko biltzarra handia, zeina bultzatzen baitute Abu-Sitta doktoreak eta bere kolegek maiatzaren 15ean.

Gaia benetan da kitzikagarria eta funtsezkoa gure gizadiarentzako, baita bere biziraupenerako ere. Uztartzen ditu filosofia, medikuntza eta zientzia.

Zer gertatzen zaio jendeari gerra eremuetan? Zer da benetan gerra eremu bat? Biok antzeko ondorioetara iritsi ginen, biok ideia berarekin ari garelaiko lanean baina bi angelu ezberdinatik begiratuta: “Miseria gerra da. Estatu indartsuak desegiteak gatazka dakar. Planetako jende pila bat bizi da gaur egun gatazka edo gerran, sarritan ohartu ere egin gabe: txabolategietan, errefuxiatu kanpalekuetan, edo arras hondoa jokako estatuetan”.

Elkarrekin asko mintzatu gara: beldurraz, zeina ari baita irensten Britainia Handia bezalako herrialdeak, indibidualismo eta berekoikeri uhin berriaz eta honen sustraietan dagoen frustrazioaz. Une batean esan du doktoreak: “Munduko leku gehienetan ‘askatasuna’ hitzak esan nahi du gure herrialdeen independentziaren aldeko borroka. Aldiz, Erresuma Batua bezalako lekuetan, haren sinonimoak gehiago dira indibidualismoa, berekoikeria eta norberaren eskubideak”.

Mintzatu gara imperialismoaz, medikuntzaz eta Ekialde Hurbilaren sufrikarioaz. Eta azkenean erabaki dugu elkarritzeta hau publikatzea, argi pitti bat egiteko “Gerrako Ekologia”z, filosofiarako bezala medikuntzarako funtsezkoa den disciplina berri honetaz. Elkaritzeta 2017ko apirilaren 25ean eduki genuen, Beiruteko Younes kafean.

Kontratu Sozialaren urradura aipatzen duzu mundu arabiarrean eta Europan

Munduaren Hegoaldean medikuntza eta osasun zerbitzuak estatu post-kolonialaren osagai funtsezkoak ziren. Estatu postkolonialak kontratu

sozialaren osagaitzat antolatu zituen Irak, Egipto eta Sirian geneuzkanak bezalako osasun sistematikak, beren sorrerako muinean zeuden. Estatuak horrela erakusten zuen boterea bi eratan zerabilera, era hertsatzailean (estatuak sartu zaitzake presondegian, edo baita bortizkeria erabili ere zure kontra) baina batik bat modu ez-hertsatzailean, bortxarik gabe: eman behar dizu etxea, hezkuntza, osasun zerbitzuak, eta abar. Estatuari botere ez-hertsatzaile hori funtsezko zaio bere legitimatze prozesuan.

Digresio bat baimentzen bazait, begiratu nola eraitsi zuten estatua. Iraken kontrako zigorrren helburua ez zen Makhabarat [zerbitzu sekretuak] edo armada ahultzea, baizik eta Irakeko estatuari kentzea bere indar ez-hertsatzailea, bere ahalmena jendeari emateko bizimodu, hezkuntza. Eta 12 urte ondoren estatua erabat hondoratu zen barnetik, ez bere indar hertsatzaileak ahulduak zirelako, baizik eta bestelako botere hori ostu ziotelako, jendeei bizimodu segurtatzeko ahalmena.

Beraz, nolabait estatuaren eta herritarren arteko kontratua hautsi zutela.

Dudarik gabe! Eta zuk kontratu hori bera zeneukan herrialde post-kolonial gehienetan. Gero sartu zituzten Nazioarteko Diru Funtsak eta Munduko Bankuak sustatutako politikak, zeinen arabera osasun zerbitzuek negozio aukerak ematen baitzikieten agintean zeuden eliteei eta korporazioei eta, aldig, doako osasun zerbitzuak estatuentzako zama ziren. Orduan hasi zen estatuaren aginte ez-hertsatzaileen ahultzea Egipto eta Jordania bezalako herrialdeetan, honek ekarri zuelarik beren legitimotasunaren ahultzea. NDF eta MBaren helburua zen osasuna produktu salgarri [*commodity*] bihurtzea, hura jendeari saltzeko zerbitzua bailitzan... pagatzeko moduan daude-nei saltzeko.

Beraz, AEBetako eredua, baina askoz modu basatiagoan, soldatak herrialde horietako gehienetan askoz ere apalagoak direlako.

Hori da. Eta honela mamitzen duzu operazioa: bi mailako sistema sortzen duzu eta publikoa den mailari dirua kendu, jendeak jo dezan sektore pribatura. Orduan, sektore pribatuaren aurkitzen dituzu osasungitza pribatuaren osagai arrakastatsu guztiak, osasun asegurutik hasita arreta zerbitzu eta botiketaraino.

Paradoxikoki, horixe bera ari da gertatzen oraintxe bertan Britainia Handian.

Britainia Handian eta Europako beste herrialde askotan. Baino aurretik gure eskualdean gertatu zen, mundu arabiarrean. Hemen osasun zerbitzuak funtsezkoak ziren estatuen sorrerarako, eta funtsezkoak beren legitimotasunarentzako.

Oso agertoki zinikoa izan da: Mendebaldeak osasun sistema pribatua inposatzen zien herrialde arabiarrei eta munduko beste askori eta bitartean Mendebaldean bertan, salbu eta AEBetan, zerbitzu medikuek jarraitzen zuten publiko eta ia doakoak izaaten. Esan nahi dut Europan, Kanadan, Australian eta Zelanda Berrian.

Bai. Europan ongizate estatua II. Mundu Gerratik sortu zen, kontratu sozialaren atala zen osasuna



André Vltchek Noam Chomskyrekin: Mendebaldeko terrorismoa liburua egina dute elkarrekin, gurean gaztelaniaz Txalapartak argitaratua. ANDRÉ VLTCHEK

“

Mendebaldeko osasun sistemak gaur galtzen ari diren bataila zera da: pentsatu dute haiengan uztea sistema kapitalista brutalaren ondorioak, osasun sistemak tratatuz Gobernuz Kanpoko Erakundeak balira bezala

segurtatzea. Thatcherismoaren eta Reaganismoaren etorrerarekin ongizate estatua eraitsiz joan ziren, baina Britainia Handian, eta berdin Alemania bezalako herrialdeetan, beste lekuetan iritsitako neurrietairaino iristea politikoki arriskutsua zen, hauteskundeetan galtzea ekarriko zuelako.

Beraz, bigarren plana izan zen osasun sistema hondatzea, milaka putzadaz pixkanaka hura hiltseko. Horrek eramaten zaitu Britainia Handian bezala osasun saila zatika-zatika pribatizatzen. Eta jendeak ez daki, ez da ohartzen sistema pribatizatzen ari direla. Edo Alemanian bezala, gobernuak ez pagatzera osasun zerbitzuagatik: gobernuak diruz laguntzen ditu aseguru etxeak eta hauek ateratzen diote etekina osasungintza pribatuari.

Bada dilema filosofiko bat gaur medikuntza-koprofesionalen artean eztabaidatu behar litzatekeena. Europako aseguru soziala bera ere ez al da neurri batean konponketa ziniko bat? Europako herrialdeak bloke imperialistaren zati dira gaur egun AEbekin batera eta horiek ari dira arpilatzen gainerako mundu guztia, Ekialde Hurbila, Afrika eta Asiako zati osoak, eta beren sistema soziala ari dira diruz laguntzen lapurreta horretatik. Hau batetik. Bainan, gainera, gertatzen da Britainia Handian edo Alemanian ari diren mediku eta erizain asko askoz herrialde pobrea-

goetatik ‘importatu’ dituztela, hauetan hezi ondoren doan. Beren beharrean diren herrikideei laguntzeko ordez, orain ari dira lanean Europako jende zahartu, mimatu eta esijenteenei, sarritan mediku instalazioak ‘klub sozialak’ bailira erabiltzen dituzten jendeei.

Nire ustez gertatu dena da Europan ongizate estatuaren hondatze bat atal guztietan. Politikoki ez zen posible gainetik kentzea doako osasungintza. Britainia Handian ikus dezakezunez, arazoa da osasunean agertzen direla jendeak bizi dituen faktore sozial eta ekonomikoen ondorioak. Zuk langabezia kronikoa baldin badaukazu, bigarren eta hirugarren belaunaldiko langabetuen arazoa, horrek ondorioak dakartzza osasunean. Suntsitzen baldin badituzu erretiroak eta aldi berean langabetuentzako babeserako laguntzak, horrek ondorioak dakartzza. Etxebizitzen egoera txarrak osasun ondorioak dakartzza. Langabezia masiboa osasun arazoak dakartzza. Politikoki erraz lortu zuten ongizate estatuaren beste osagaia gainetik kentzea, baina orduan topo egin dute osasun arazoarekin. Horregatik, Mendebaldeko osasun sistemak jokatzen eta galtzen ari diren bataila zera da: pentsatu dutela haiengan uztea sistema kapitalista brutalaren ondorioak, osasun sistemak Gobernuz Kanpoko Erakundeak balira bezala.

Baina badakigu bizimodu en aldatetek jendearen osasunean kalteak eragindakoan, beranduegi dela sendatu edo prebenitzeko. Eta horixe da Europako osasun sistemek egiten dutena, ahaleginzen dira jendeari adabakiak jarrita berriz kalera bidaltzen. Horrela, umeak baldin badauzkazu asma kronikoarekin, asmak tratatzen dituzu baina ez haurrak bizi diren zabor-etxeak. Eraso bortitzak baldin badauzkazu eta bortxagatiko traumak, traumak tratatzen dituzu, agerpen fisikoak, ez gazteen langabezia den desastrea, edo honek sorrazten duen arrazismoa.

Beraz, zuk [sistematik] “anomalia” deitzen duten hau sostengatzeko, behar duzu osasun zerbitzu

puztu bat, zeren eta jendea gaixoarazten duzu eta orduan hura konpontzen ahalegintzen zara, hura berriro ez gaixotzeko modua egiten baino. Horregatik sortu dira mediku-burmuin ihesak, eta horra nola ghanatar doktore gehiago dagoen New Yorken Ghanan bertan baino.

Eta erizain filipinar armada oso bat daukazu Britainia Handian, Manilan erizain kualifikatuen eskasia dagoen bitartean.

Dudarik gabe. Hori gertatzen da gaur egun jendearen osasuna ‘gertatzen’ delako osasun sisteman kantzen. Osasun sistema suntsitu ezin duzunez, bukatzen duzu osasun sistema puztu bat edukitzeten ataritik iristen zaizkizun gaixotasunak konpontzen saiatzeko.

Zuk eskualde guztian egin duzu lan, Iraken bezala Gazan. Biok egin dugu lan Gazako Shifa ospitalean. Gerra garaian Libanoko hegoaldean aritu zinen lanean. Zenbateraino dago gaizki osasungintza Ekiade Hurbi-

lean? Zein neurritan izan da txarra Iraken gaixotutako jendeentzat, alderatzen baldin baditugu Mendebaldeko gaixoekin? Zein neurritan da krudela Gazako egoera?

Begiratzen jarrita Irak bezalako lekuetara, Irakek 1980ko hamarkadan ziurrenik eskualdeko osasun sistemari aurreratuena zeukan. Gero gertatu zen Iraken kontrako lehenbiziko gerra [Kuwaiten inbasioa] eta jarraian 12 urteko zigorrerek erabat eraitsi zuten osasun sistema. Ez gara ari soilik ospitale eta botikez eta medikuen eta osasun profesionalen atzerriratze bortxatuaz, baizik eta baita ere ur eta estolderia eta argindar planten suntsiketaz, jendearen bizimoduetan eragin zuzena daukaten atal horienak.

Eta gero etorri zen uranio pobretua...

Eta mix horri gehitu iezaiozu 2003ko gerra eta ondoren estatuaren suntsiketa eta eraiste erabateko, eta Irakeko doktoreen erdiaren emigrazioa...

Nora alde egin zuten?

Mundu osora, Golko arabiarrean bezala Mendebaldera, Ipar Amerikara, Europara... Beraz, Iraken daukazu sistema bat ez bakarrik hautsia baizik eta galdu dituenak berreraikitzeko beharrezkoak diren osagaiak oro. Iraken ezinezkoa zaizu mediku belaunaldi berri bat entrenatzea, zeren eta irakasteko gai diren guztiak alde egin baiitate atzerrietara. Ezin duzu osasun sistema bat sortu Iraken, zeren eta sortu duzun gobernu azpiegitura berez baita ezezonkorra eta oinarritua aginte guneen multi-polaritatean, gune bakoitza beste guztiekin borrokan estatuaren opila kontrolatua nahian... Horregatik irakiarrek osasuna azpikontratatzen



Familia txiroz betetako Greenfell dorrea sutan Londresen 2017ko ekainaren 14an (80 hildako), ongizate gizartearen hondoratzearen adibide.

“

Ezialde Hurbilean gerrak ez dira hasi eta bukatzen. Beren iraupen luzeagatik ekologia aldatzen dute, gerrako ekologia sortzen dute. Ekologia honek bizirauten du tiroketak bukatu eta askoz beranduago ere

diete ospitale mailan Indiari, Turkiari, Libanori edo Jordaniari, gurpil zoro batean sartuta daude-lako.

Baina hori ez da izango pagatzeko gai direntzako besterik.

Bai, pagatu dezaketenetzako, baina berdintsu gertatu da gobernuak dirua eduki duen boladetan ere, ezin izan du sistema berreraiki inolaz ere.



Irakasleak zaintzen ditu lotan dauden haurrak Gazako babesleku batean, 2014ko bonbaketa batean. “Gazaren kasuan israeldarrek diote: ‘hainbeste urtean behin joan eta segaz belarra moztu behar diezu’”. GHASSAN ABU-SITTAH

Horregatik azpikontratatzen ditu osasun zerbitzuak atzerrian, sistema hain hautsia dagoenez diruak berak ere konpondu ezin duelako.

Berdin gertatzen al da inguruko beste herrialdeetan?

Berdina ari da gertatzen Libian, eta berdina Sirian, medikuen ihesari dagokionez. Siriak nozituko du Irak gertatu zaionaren oso antzeko zerbaitek gerra bukatzen denean, baldin eta Siriako estatua suntsitzen badute.

Baina oraindik zutik atxikitzen du

Bai, eta Sirian oraindik osasun zerbitzua eskaintzen dio populazioaren gehiengo oso handiari, baita matxinoen kontrolpeko eskualdeetan bizi direnei ere. Jarraitzen dute Damaskora eta beste hirietara bidaiatzen kardiologia edo onkologiako arratzeak jasotzen.

Galderarik gabe, “gaixo baldin bazaude tratatuko zaitugu” eta puntu?

Baita ISISek kontrolatutako eskualdeetik datozenerei, jendea joan daiteke eta tratamendua jaso, estatuaren lanetako bat horixe delako.

Hezkuntzarekin berdin gertatzen da. Siriak oinarritzko zerbitzu guztiak eskaintzen ditu oraindik.

Dudarik gabe. Baino Libian, estatua erabat desagertu edo suntsitu delako, hori guztia bukatu da.

Honez gero Libia ez da herrialde ere...

Libian ez dago herrialde bateratutik eta hor bai ez dagoela inolako

osasun sistemarik. Gazan eta Palestinan, okupazioarekin eta setioarekin segurtatzen dute osasun sistemaren garapen normalizatu bat ez egotea. Gazaren kasuan israeldarrek diote “hainbeste urtean behin joan eta segaz belarra moztu behar diezu”. Ahalik eta jende gehiena hiltzen duzu gerra basati eta intentso horietan, segurtatzeko ondoren beste urte batzuetan jendeak nahiko lan izango duela zuk eragin diozun hondamendiaren erdian bizirauten.

Israelgo medikuen laguntzaren bat ba al da?

Bai, noski. Oso mediku bakanak, baina badira... Baina gaur egun Israelgo establishment medikua Israelgo establishmentaren osagai intrintsekoa da, Israelgo medikuntzako ikasketa sistema den bezala. Israelgo Medikuen Elkargoak ez du kondenatu nahi doktore israeldarrek aztertzea preso politiko palestinarrak haiek “galdeketarako gai izateaz”. Eta hau funtsean da... zu ikustera etorríko zaizula doktore bat erabakitzentzen duena zenbat tortura jasateko gai zaren hiltzeko puntura iritsi aurretik.

Honek gogorarazten dit 2015ean esan zidatena Pretorian, Hego Afrikan, Bakearen aldeko Psikologoen Nazioarteko Batzarrera konbidatu nindutenean. AEBetako zenbait psikologok kontatu zidaten ustezko terroristen galdekatze eta torturetan psikologo profesionalak eta baita psikiatra klinikoak ere egoten zirela aurrean, askotan galdetzaileei laguntzen.

Bai, gaur ezagunak diren bi-hiru psikologo ame-rikarrek diseinatu zituzten CIAren galdeketa sistemak, haien prozedurak.

Zuk Palestinan gertatzen dela azaltzen duzun hau, antza, oso hedatutako sistema da. Indiak kontrolatutako Kaxmirren kontatu didate inteligentziako ofizial israeldarrek irakasten dizkietela beren galdekatze eta tortura metodoak Indiakoei. Prefosta, AEB honetan ere sartuta daude.



**Aita-seme siriar errefuxiatuak gas bonbona baten
garraio Libanoko Bar Elias kanpalekuaren.** YAHOO NEWS

Gerrako medikuntza Napoleonen gerren garaian sortu zen. Gerra haietan bi armadak egiten zuten talka, gehienik frunte-lerroetan. Batak besteari egiten zioten eraso, batak besteari tiro edo egurra eman. Zauritu gehienak gudariak ziren, gero ospitale militarretan artatzen zituztenak. Baina gerrako medikuntzan bilakaera gertatu da.

Ekialde Hurbilean zera gertatzen da gure ustean: gerra edo gatazkak ez direla, ez intentsitatez eta ez iraupen luzerari dagokionez, denbora jakineko guduak, ez dira hasi eta bukatzen. Beren iraupen luzeagatik ekologia aldatzen dute, jendea bizi den ekologia. Gerrako ekologia sortzen dute. Ekologia honek bizirauten du tiroketak bukatu eta askoz beranduago ere, zeren eta jendea bizi den ingurumen osoa eraldatu baita.

Zuriak dira fisikoak, psikologikoak eta sozialak; ingurumena eraldatu da arriskutsu izateraino, bai osasun onean direnentzako baina batez ere zaurituentzako. Horrela gertatzen da botika ugarirekiko erresistenteak diren mikrobioekin; mundu osoan gaur arazo handia diren bakterio botikekiko erresistente hauetakoak dauzkaten Irakeko gerran zaurituen %85ek, Siriako gerran zaurituen



Gerra amaiezin batean amildua den Yemengo herritar bat kolerak jota.
JAPAN TIMES

%70ek... horregatik diogu: ekologia honek, gatazkek sortzen duten biosfera honek, bakterioen ADN oinarrizkoa bera ere eraldatzen dute. Badugu zenbait teoria horretaz; neurri batean, botika modernoek daramatzaten metal astunen kontua da, horiek piztu baitezakete bakterioen mutazioa antibiotikoekiko erresistente bilakatzeaino.

Beraz, zure biosferak, zu bizi zaren burbuila ekologiko horrek, etengabe aldatzen dirau. Eta ez da desagertuko bonbak desagertutakoan ere. Eraitsi beharra dago, eta horretarako ulertu egin behar dituzu gerrako ekologiaren dinamikak. Horrexegatik abiatu zen gure programa unibertsitatean, Libanoko gerra zibilean eta israeldarren 1982ko inbasioan irakaskuntza zentro nagusi izan den horretan. Geroago hasi zen gerra Iraken, eta beranduago Sirian, eta hasi ginen gaixoak herrialde haitatik jaso eta hemen tratatzan. Ohartu ginen gatazkako medikuntzaren dinamikak eta gerrako ekologia ulertu beharra geneukala nola gertatzen diren gerraren ondorio fisiko, biologiko, psikologiko eta sozialak; dena aldatzen baita, bakterioetatik uraren zikloak, gerraren arrasto toxikoak, jendearen gorputzen erreakzioak... Nik artatu ditudan

gaixo irakiarretako askok familia-ko kide asko dauzkate zaurituta.

AUBMC ospitalea pioneroa da gerrako ekologiaren ikerketan?

Bai, Libanoko gerra zibilaren eta Ekiaddeko gerra errejionalen ondo-rioengatik.

Azken finean, eskualde mailako gerra perpetuo batez ari gara.

Gatazka perpetuoaz, bai, lehen etxeen egosia eta gero eskualde mailan. Irakeko Osasun ministroarentzako erreferentziazko zentroa gara, Irakeko Barne ministroarentzako ere bai, eta jokatzen dugu eskualde mailako zentro gisa. Gure programak helburu dauka denbora eta energia gehiago ematea gerrako ekologia honen nondik norakoak ulertzeko.

Nire idatzi eta filmetan sarritan nabarmendu dut gerraren eta muturreko txirotasunaren artean dagoen paralelismoa. Munduko txabolategizko auzunerik txarrenetan jardun naiz lanean, Afrikan, Erdiko Amerika eta Kariben, Asia hegoaldean, Filipinetan, denean. Eta jabetu naiz teorian bakean bizi diren gizarte askotan benetan bizi direla gerra iraunkor edo baita perpetuoetan. Muturreko miseria gerra mota bat da, nahiz eta ez egon “gerra deklaraziorik” inon eta fronteko lerro zehatzik ere ez. Informazioa landu dut ezin konta ahala gerratan eta beste hainbeste muturreko miseriazko guneetan, eta deigarri egiten da bien arteko paralelismoa, batez ere gizakiengan daukaten ondorio fisiko, psikologiko eta sozialei dagokienez. Zure ikerketetan ikasiarekin, berdin pentsatzen duzu?

Zalantzak gabe, bai. Jendearen “deshumanizazioa” dago horren muinean. Muturreko pobre-

zia bortizkeria mota bat da. Zenbat eta muturragokoa pobrezia, orduan eta hurbilago bortizkeriaren izaera fisikotik. Gerra da jendearen bizimoduaren degradazio oso azkarra muturreko pobreziaraino iristeko. Bainan txirotasun horretara iritsi daiteke prozesu gradualago batez ere. Gerrak egiten duen bakarra da proze-sua azkartzea.

Muturreko txirotasun perpetua, hortaz, gerra edo gatazka perpetuo baten antzekoa da?

Ezbairik gabe. Da gerra bat egina batez ere bal-dintza horietan bizitzera bortxatutako kontra. Txiroen kontrako eta munduaren Hegoaldearen kontrako gerra. Eta bada txiroen kontrako gerra Mendebaldeko hirien barruan ere.

Gerrako ekologiaz ari zaretenean, ikertzen duzue muturreko txirotasunak gizakien gorputzetan eta bizitzetan dauzkaten ondorioetan? Ekialde Hurbilean, muturreko txirotasuna sarri aurkitzen da errefuxia-tu kanpaleku erraldoietan, eta munduko beste eskualde askotan hirietako txabolate-gietan.

Aipatzen dugun ekologian sartzen da muturreko txirotasun hau ere. Ekologiaren ezaugarrietako bat honela gertatzen da: gorputz zauritu bat hartu eta kokatzen duzu ingurumen fisiko arriskutsu batean, orduan ikusten duzu gorputz hau behin eta berriro ber-zauritzen, ingurumen gaiztotu hori gudu zeliaaren jarraipen bihurtua da, horregatik gertatzen da amai ezinezko zauritza. Ez zaude Siria-ko fronteren bateko zokoren batean, baina zure haurrak bizi dira kanpin denda batean beste zortzi pertsonarekin nahastuta, eta horregatik daude horiek ere errefuxia-

“

Kongoko gatazka “fase aurreratuago” bati dagokio: meatze konpainiek okupatu dute Kongo eta gerrak beren eskutik zuzenean kudeatzen dituzte. Estatua desager arazita, orain korporazioek agintzen dute zuzenean, kolonialismoan bezala

tuen kanpalekuetan nozitzen dugun ume erreen epidemiaren biktima, bizileku txiro eta arriskutsuetan egoteagatik.

Beste puntu batetik ere aztertu dezakegu: zer da gerrako zauria, gatazka bati dagokiona? Oinarrikoena litzateke tiro batek eragindakoa edo metrailak eragina. Bainan zer gertatzen da gorputz zauritu hori hartu eta denda batean uzten duzunean? Konplikazioak dauzkala ingurumen arriskutsu batean egoteagatik. Gerrako zauriak dira ala ez? Jendea hainbeste pobretzearen ondorioz baldin badauzkazu haurrak etxebizi-



Haurrak aspaldi AEBek hegazkinetik jaurtitako bonben karkasa gainean jesarrita Laoseko herrixka batean. JONATHAN FONTAINE

“

Gerra ekologia ulertu behar dugu, nola gertatzen diren gerraren ondorio fisiko, biologikoa, psikologikoa eta sozialak; dena aldatzen baita, bakterioetatik uraren zikloak, gerraren arrasto toxikoak, jendearen gorputzen erreakzioak...

tza arriskutsuek eragindako zauriak dauzkatenak, gerrak zauriez ari gara? Badauzkagu ere haurrak laneko zauriak dauzkatenak, familia osoaren ogia irabazterea lanera irten beharra daukatalako, lan eginez kotxeak konpontzen, zama lanetan edo ahal dutenetan. Kontuan hartzu behar dituzu ere gaixotasun batzuk zu zatozen herrialdean tratatzeko modukoak direnak baina osasun sistema suntsitu duten lekuetan ezin direla inola tratatu, ospitalerik ez dagoelako edo medikuek alde egin dutelako... Ez dira gerrako zauriak? Beraz, eko- logiari osotasunean begiratu behar diogu: baletatik eta metrailatik harago, nahiz eta hauek bereganatzen dituzten titularrak hedabideen lehen 20 segundoetan.

Zuen ikerketak garrantzizkoa dirudi munduko leku gehiene tarako.

Ziur. Zeren eta badakigu krisi humanitario deitzen dituzten horiek soilik existitzen direla hedabideen eta Nazio Batuetako agen- tziien irudimenetan. Krisirik ez dago.

Berriro egiten dugu topo egoera perpetuo batekin.

Hain zuzen ere, perpetua da. Ez da gelditzen. Etengabe dago hor. Horregatik ez dugu aipatzen “aldi bateko krisia” bezalakorik, gu ideia horren kontra gaude. Ez da arbitrrik bere txilibituar- kin krisien amaierak txistukatzen dituenik. Tele- bista kamerek alde egiten dutenean, hedabideek eta gero munduak erabakitzenten dute krisiak buka- tu direla. Baino badakigu, esate baterako, Laose- ko jendeak nozitzen dituela gaur egun ere mun- duko anputazio kopuru handienak.

Ondo dakit, bai, gaur oraindik minatuta dauden hango eremuetan lanean ibilia naiz.

Edo begira ezazu Vietnamese, dauzkana aurpegia deformatutako umerik gehien mundu osoan Agent Orange [dioxina] pozoia ondorioz.

Ni ere bizi izana naiz Vietnamese. Eskualde osoak sufritzen ditu oraindik ere “Gerra Sekretua” deitu zutenaren kalteak. Laosen hain da larria txirotasuna, ezen jendeak behartuta daude AEBetako armadaren bonba lehertu gabeak txatarretarako sal- tzen. Tarteka lehertu egiten dira. Kanbo-



Haitin mediku militar bat zango hautsi bat artatzen kale gorrian.
WIKIPEDIA

dian badira herriak non jendeak oraindik hiltzen diren edo zangoak galtzen dituzten aspaldiko gerrako bonbengatik. Baino India ere gerra eremua da, Kaxmirretik hasita Ipar-ekialderaino, Bihar eta Munbaiko txabolategietaraino...

Gatazka bat neurtzeko modurik gordinena era-biltzekotan, hau da, armaz hiltzen diren jendeen kopuruak, Guatemala eta El Salvadorren oraintxe bertan jende gehiago erailtzen da gerra garaian baino. Baino bortizkeriaren itxura aldatu denez, gaur egun ez daramalako halako etiketa politiko bat, eztabaidan agertu ere ez da egiten. Baino jendea da jendearen kontra ari dena.

Idatziz eta irudiz azaldu ditut El Salvador, Honduras eta Nikaragua behin baino gehiagotan. Hango muturreko bortizkeria da Mendebaldeak, bereziki AEBek, ezarri zuten gatazkaren ondorio zuzena. Berdin esan daiteke Jamaika, Dominikar Errepublika eta Haitiri dagokionez. Kolapso sozial ia erabatekora eraman dituzte.

Bai, Jamaikan CIAk protagonismo handia eduki zuen 1970ko hamarkadan.

Munduko paraje horietan ez gara soilik txirotasunaz ari...

Ez, ez... AK-47 fusilez ari gara!

Hain zuzen ere. Behin filmaketan ari nintzen San Salvadorren, bandek kontrolatutako eremuan... Lagun batek eraman ninduen harantz, askapen teologiako apaiz batek. Bi saio egin genituen. Lehena ondo pasatu zen. Bigarrenean su egin zuten gure Lan Cruiserren kontra, munizio larriz. Gure autoaren albo bat bala zuloz beteta zegoen, bi gurpil zulatu zizkigutenean, llanten gainean alde egin behar izan genuen. Herrietan mara taldeetako jendeak nahi duena egiten du, etorri, ostu eta bortxatu. Gerra da.

Gurutze Gorriak gerrako medikuntza sartuta dauka Kolonbia eta Honduraseko medikuntza fakultateetako curriculumentan. Herrialde horiek benetan gerran daudenez, doktoreak horretarako prestatu behar dituzu, jakin dezaten nola jokatu egunero armaz zaurituta iristen zaizkien lau edo bost eriekin.

Utz iezadazu kontatzen behin nire begiz Haitin ikusi nuena, esan duzun horren hari-tik. Duela urte batzuk Cité Soleil auzoan ari nintzen, Port-au-Princen. Esaten dute munduan den auzune edo txabolategi arriskutsuena dela. Han esaten dute: “Sartu, sar zaitezke, baina sekula ez zara bizirik irten-go”. Kamioi batean sartu ginen, bi zaindari armatu eta guzti, baina bakar-bakarrik utzi ninduten kale gorrian, nire bi kamera handi eta material guztiarekin. Ez neukan beste aukerarik, lanean jarraitu behar izan nuen. Halako batean eraikin baten ondoko harresiaren aurrean jende ilara luzea ikusi nuen. Hurbildu nintzen. Eta agertoki harrigarri batekin egin nuen topo: jendeak zurezko mahai batzuen gainetan etzanda, odola nonahi, eta AEBetako mediku militarrak kale bazter hartan kirurgia egiten. Bero egiten zuen, dena euli eta hauts... Gizon batek esan zidan bere andreak tumore handi bat zeukala. Aztertu ere egin gabe zer zen, medikuek etzan zuten mahai batean, eman zioten [anestesia] ‘lokala’ eta hasi zitzakion hura kentzen. Operazioa bukatutakoan, senar-emazteak poliki-poliki autobus geltokira hurbildu ziren oinez eta etxerantz. Handik kilometro pare batera aurkitu nuen AEBen zentro mediku ondo ekipatua, baina soilik AEBetako tropa eta ekipoentzako. Medikuei galdetu nien ea benetan zertan ari ziren Haitin eta lasai ederrean argitu zidaten, esanez: “Gerra agertokirako entrena-tzen gara hemen. Gerra baten hurbilagokorik ezin dugu aurkitu hau baino”. Gizakiek ari ziren esperimentatzen, noski, ikasten nola operatu gudu guneetan...



Ghassan Abu-Sittah doktorea bideokonferentziaz Beiruteko ospitaletik laguntzen Gazan operazioa egiten ari den zirujauri. AUBMC

Izenetan dago differentzia bakarra.

**Zu zarenez kirurgialari bat lan egin duzuna
Ekialde Hurbilaz gain munduko beste leku
askotan, nola alderatuko zenituzke Asian,
Afrikako Aintzira Handietan edo bestetan
dauden gatazkak?**

Ekialde Hurbilean oraindik bada jendea gogoan duena ospitaleak eduki zituztela. Gure ospitalera datozen irakiarrak oroitzeten dira 1980ko garaiez. Bizimodua ezberdina zen orduan eta ezberdin izan zitekeen. Osasunaz alfabetatuta daude. Beste alderdia da soilik 2014an 30.000 irakiar zauritu zituztela. Zenbakia beldurgarriak dira. Libiako kopuruez ez daukagu arrastorik, Libian gertatzen ari diren garbiketa etnikoaren eta hilketen kopururik. Zenbakia berak larriak dira, baina eraginei dagokienez oraindik des-medikalizazio fasearen hasieran gaude. Ez da sistema horiek ez dutela eboluzionatu: desegin egin dituzte. Atzeraka doaz.

**Mendebaldearen imperialismoari egozten
diozu errua?**

Erreparatzen baldin badiezu zigor ekonomikoei eta horiek osasun sistemari egindako kalteari, jakina baietz! Begiratzen badiozu Libiari, jakina baietz! Esaten denean estatu horiek desegin egin direla, hori gezurra da. Ondo ezagutzen ditugu zigor ekonomikoien dinamikak Irak eragindako kalteak, edo zer gertatu zen Iraken 2000az geroztik. Ondo ezagutzen dugu zer gertatu den Libian.

Edo Afganistanen...

Mujahidinek Afganistan edo Contrak Nikaraguan egin zuten lehenbiziko gauza izan zen klinikak atakatzea. Iparramerikarrek beti jakin dute estatua suntsitu dezakezula lehen aipatu ditugun ahalmen ez-koertziozko horiek herritarrei ematea eragotziz.

**Iruditzen zaizu munduaren alderdi hau dela
gehien kaltetuena?**

Gaur egun bai, dudarik gabe. Estatistikek erakussten dute. Uste dut gerretan hiltzen diren guztienei %60 inguru eskualde honetan hiltzen direla...

**“Eskualde hau” diozunean, geografian nola
zehazten duzu?**

Afganistandik Mauritaniaraino. Barnean harturik Aljeria eta Mali arteko muga. Libiako muga... Sudanen zatiketa izan den katastrofea, Hego Sudanen gertaten dena, Somalian gertatzen dena, Libian, Egipton, Sinai desertuan, Sirian, Yemenen, Afganistan, baita Pakistanen ere dro-neekin han hiltzen dituzten jendeekin...

**Baina badauzkagu Kongoko Errepublika
Demokratikoan hil diren 10 milioi jendeak
ere, ruandarren 1995ko inbasioaz geroz-
tik...**

Hori ezberdin samarra da. Hori beste ‘fase aurre-ratuago’ batik dago: estatua erabat desagerrara-ziztu duzunekoari... Mundu arabiarrean Libia dago agertoki horretatik hurbilen. Petrolio konpainiek hartu dute menpean herrialdea. Meatze konpaineiek okupatu dute Kongoko Errepublika Demokratikoa eta gerrak beren eskutik zuzenean kudeatzen dituzte, Mendebaldeko armadek baino gehiago. Higatzen duzu estatua, erabat, azkenean estatua desagertzearaino eta orduan korporazioek agintzen dute zuzenean, kolonialismoaren aroan egin zuten moduan, East Indian Companyren eta Holandako imperioko konpaignen garaian bezala, haien dira jokalari nagusiak berriro.

Zein da zuen ikerketaren helburua, ‘Ecology of War’ deitu proiektu erraldoiarena?

Azpimarratzen dugun ezaugarrieta bat da hurbilketa holistikoa. Konpartimentazioa zentsuratzeko prozesuaren parte da. “Zu mikrobiologoa zarenez, soilik erreparatu behar diozu halako bakteriori zer gertatzen zaion... Zu kirurgialari

“

Hemen gerra perpetua da. “Aldi bateko krisia” ideiaren kontra gaude. Ez da arbitrorik txilibituararekin krisien amaierak txistukatzen dituenik. Telebista kamerek alde egiten dutenean, hedabideek erabakitzenten dute krisiak bukatu direla

ortopedikoa zarenez, zuk aztertu leherketen zauriak, bonbenak, lurreko minenak...”. Konpartimentatzeko honek eragozten du elkartzea argazkia bere osotasunean ikusteko gai litzatekeen jendea. Horregatik azpimarratzen dugu programa honek badauzkala soziologoak, politologoak, antropologoak, mikrobiologoak, kirurgialariak... Bestela ez dugu ikusiko zientzia tipia baizik. Saitzen gara zientziak elkarlanean jartzen argazki handia ikusteko, puzzlearen atalak elkartuz.



Neskatxa errefuxiatu gerran zauritua bere senideekin Handicap International GKEren laguntza jasotzen. ELIAS SAADE

ARGIA 2018ko egutegia

Egunero etxe, elkarte eta eskoletako hormak edukiz janzteko.



***Eskatu orain
ARGIAren egutegia.***

Ba al zenekien?...

Hizkuntza gutxituak munduan

Umorea

Historiako emakumeak

Euskal Herriko pegatak

Mikroipuinak

Baratzerako trikimailuak

ARGIAñ esanak



943 371 545
www.argia.eus/denda
denda@argia.eus